

kin solasaldia. 12:00etan, Iba-etan. Homosexualitateari buruzko jardunaldien barruan.

► **Daniel Borrillo, Jose Angel Cuerda eta Clara Asuarekin mahai ingurua.** 20:00etan, Egia kultur etxean.

IRUÑEA

► **Estresa lanean.** 11:00etan

ERAKUSKETAK

ANDOAIN

► **Idoia Beratarbideren erakusketa.** Oleoz egindako margoak. Salgai, Itzala tabernan. Azaroan.

AZPEITIA

► **Jose Ramon Larrañagaren erakusketa.** Antxieta etxean, azaroaren 24a arte.

► **Argazki lehiaketako erakusketa.** 40 argazki ikusgai, azaroaren 11 arte.

BEASAIN

► **Bilbao (1860-1895).** Pedro Tellesforo Errazkinen erakusketa. Euskal musean.

► **Errotak eta energia berritzagarriak.** Beasaingo Igartza jau-regian abenduaren 10a arte.

► **Maestros antiguos y modernos.** Bellas artes musean.

► **Zurbaran, azkenaldiko lanak.** Arte ederretako musean, urtarrilaren 14a arte.

► **Iñaki Olazabalen erakusketa.** Azaroaren 11 arte Berta Belaza galerian.

► **Anthony Caroren azken jui-zioa.** Urtarrilaren 14a arte.

BERGARA

► **Eustakio Agirreolearen erakusketa.** Azaroaren 12a arte.

DONOSTIA

► **Hegoaldeko argazki zinema-ko hirugarren erakusketa: Milurtekoaren amaierako desberdintasunak du izena.** Mugarik Gabe eta Donostiako Udalak antolatu dute, eta Altza-ko auzo etxean dago 16a arte.

► **Fujilm Donostia III. argazki igandean aukeratutako 200 argazkien erakusketa.** Gipuzkoako argazkilari elkartearen egoitzan, azaroaren 15a arte.

► **Club Vasco de Camping elkar-tearen 50 urteak.** Argazki erakusketa, Okendo kultur etxean, 17a arte.

► **Viceversa.** Jose Ramon S. Morqillasen erakusketa. Galeria 16 aretoan, abenduaren 3a arte.

► **Urban Prikzwa argazkilarien erakusketa.** Egiako Bukowsky tabernan abenduaren 10a arte.

► **Argazki leihoak.** Argazki Zaleak taldeak jarri du Egiako kultur etxean. Azaroaren 20a arte izango da ikusgai.

► **Risky eta bere lagunak.** Joxe Mari Iturralde eta Iñaki Martiarenaren (Mattin) erakusketaren aurkezpena. Arratseko

ZINEMA - BIDEOA

El Sexto Sentido filma, Egiako gazte lokalean, 18:00etatik aurrera

Itziar Saenz de Ojer

• GAZTE LOKALEKO HEZITZAILEA •

«Kosta egiten zaigu gazteak erakartzea»

DONOSTIAKO Egia auzoan badago Ttanttakun izeneko aisialdi talde bat. 12 eta 17 urte arteko gazteekin egiten dute lan eta eskaintza zabala dute. Gaur, esaterako, *El sexto sentido* filma eskainiko dute 18:00etatik aurrera.

■ **Nolako ekitaldiak antolatzen dituzue?**

Egia auzoan dugun lokala, astelehenetik ostiralera bitartean izaten dugu zabalik. Gune desberdinak ditugu: liburutegia, tailerretako gela, eta topagunea deitzen dioguna. Azken honetan, ping-pong mahaia, billarra, mahai jolasak, musika, komikiak... eta horrelako gauzak ditugu. Ekintza bereziak ere egiten ditugu: une honetan, tatuai a tailerra dugu, datorren astean ping pong lehiaketa. Gainera, irteerak ere egiten ditugu, eta jaietan ekintza bereziak.

■ **Noiztik ari zarete lanean?**

Antxeta taldea, orain hamazazpi urte sortu zen, baina hamalau urte arteko-entzat bakarrik. Orain sei urte, adin horretatik gorakoentzat ere zerbait behar zela erabaki eta gazte lokala sortu genuen.

■ **Orain artekoari buruz ze balorazio egiten duzue?**

Balorazioa ona da, baina



EGIAKO GAZTE LOKALA

Ekitaldi ugari antolatzen dituzte Ttanttakun aisialdi taldekoek, eta tartean merienda goxoak ere bai.

egia esan kosta egiten zaigu gaztetxoak erakartzea. Adina nahiko zaila da berez, eta ez hori bakarrik, gaur egun mila gauza dituzte egiteko: ingelesa dela, estraeskolarrak direla... Hala ere, gustura gaude, orain jende dezente etortzen da. Astelehenetik ostegunera 10-15 lagun etortzen zaizkigu, eta ostirale-tan askoz gehiago.

■ **Zuek gazteei beste aukera batzuk eman nahi dizkiezue, ezta?**

Bai, gu aisialdi alternati-

ba ezberdin bat eskaintzen saiatzen gara. Kontuan hartuta gaur egun dagoen eskaintza dena kontsumismoarekin lotuta dagoela, gu hemen beste era bateko ekintzak egiten saiatzen gara. Aisialdia erabiltzeko beste modu bat eskaintzen dugu. Bai gizarteak, bai komunikabideek gogor hartzen dituzte, eta gu beste alde bat erakusten saiatzen gara.

Mikel Arrillaga

DONOSTIA

ERMUA

► **Garitik hirinera.** Hirina lortzeko antzinako era. Udaletxeko erakustokian azaroaren 19a arte.

GASTEIZ

► **Sin de ti kon.** Carlos Pazosen erakusketa Amarika aretoan. Azaroaren 26a arte.

GETXO

► **Mercedes Fadriqueren oleo eta eskulturak.** Azaroaren 18a arte izango da ikusgai Erromoko erakusketa aretoan.

► **Itxas arte pintura tailerreko ikasleek egindako kuadroen erakusketa.** Algortako kultur etxeko erakusketa gelan izango da ikusteko aukera azaroaren 11 arte.

HONDARRIBIA

► **Mercedes Merinas, Asun Gonzalez eta Iñaki Morteren zermika erakusketa.** Azaroan, aireportuan.

IBARRA

► **Kazetaritzako argazkigintzaren mende oso bat. 2. zatia.** Benito Izagirre kultur etxean, azaroaren 20a arte.

IRUN

► **Jesus Maria Corman artista-ren margo erakusketa.** Azaroaren 19a arte egongo da zabalik. Ikusteko, 18:00etatik 21:00etara, astegunetan, eta 11:30etik 13:30era jaiegun eta igandetan.

IRUÑEA

► **Emilio Sanchez Cayuelaren**

erakusketa. Azaroaren 26a arte, Castillo de Maya kultur etxean.

► **Julio Pardoren erakusketa.** Pintzel galerian, azaroaren 30a arte.

LEGAZPI

► **Legazpiarrok auzitan. Mero y mixto imperio.** Udal artxiboak antolatu duen erakusketa. Azaroaren 24a arte.

OIARTZUN

► **Euskal Herria eta Dinosauriak.** Erakusketa zientifiko eta didaktikoa. Udaletxeko batzar aretoan, azaroaren 25a arte.

ZARAUTZ

► **Fernando Miliani eskainitako erakusketa.** Sanz enean.

ZIZUR NAGUSIA

► **Xabier Elizalderen erakusketa.** Azaroaren 19a arte dago ikusgai.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA

► **Eskolarteko XII. Ioramendi literatur lehiaketa.** Aretxabale-tan bizi den edonork har dezake parte. Argitaratu gabeak eta euskarazkoak izan behar dira, eta abenduaren 15a da azken eguna. Argibide gehiago, 943 770970 telefonoan.

IRUÑEA

► **Sex Haizegoa margo lehiaketaren 4. edizioa.** 18 urte beteta izan behar dira, eta ez da erotiko eta pornografikoaren arteko banaketarik egingo. Neurriak 60x100 cm-koak dira. Lanak Sex Haizegoan aurkeztu behar dira. Gonzalez Tablas kalea, 3. zenbakia, 31003, Iruñea. Datu pertsonalak beste sobre itxi batean aurkeztu behar dira. Lanak entregatzeko epea 2001. urtar-rrilaren 31n bukatzen da.

► **Sex Haizegoa narrazio erotikoen lehiaketaren 4. edizioa.** 18 urte beteta eduki behar dira eta lan bakarra aurkez daiteke. Gutxienez 25 orrialde eta gehienez 75 izan behar ditu, eta orriko 25 edo 30 lerro idatzi behar dira. Lanak izenburuarekin aurkeztuko dira, eta datu pertsonalak beste sobre itxi batean aurkeztu behar dira. 2001eko urtarrilaren 31 da azken eguna.

LAZKAO

► **Bideo lehiaketa.** Gaia librea izango da. Gutxienez 8 eta gehienez 12 minutuko iraupena izango du. lanak Gerriko liburudendan aurkeztu behar dira azaroaren 25a baino lehen. Aurkeztzen diren lanekin, abenduko liburu eta disko azokarako emaldia prestatuko dute. Bideoarekin batera, kartazal itxi batean, egilearen datuak aurkeztuko dira. Antolatzailea: Goierriko Euskal Eskola kultur elkarte.